

Oiarrez dabil gaxo, alargun antzera,  
«euskarriztat dabela besoan erio»;  
samintasun zomorrok erraietan ozka,  
ta adur txarreko belak urruma dagio.

Baiña ar artea, ene biotz, ez illundu.  
Ara argiak dizdiz itxaso ertzean:  
Berbizkunde egunaren jaiotza alaia;  
ez zurbildu, biotza, pozaren jaiean.

Susper, arren, euzkotar lo-lezaratuok.  
Illundi ortatik urten beingoz argitara.  
Bularra azkar, biotza maitasun alez  
so guztiok, irrikoi, garaitz egunera.

Zorion-izarragan begiak ezarri,  
adi ortzira, gora biotz ta gogo!  
Giro oroz bego loran anai-maitetasuna  
ta ezpanetan beti geure mintzo gozo».

Amaira zan; eztantzut eresik geiago.  
Barrun ixil-unea, ezeren ots бага;  
zelai-gentza k, batez, gain-oial mea eda  
ta ames eztitan, senik bako, eban laga.

Ordun neuk be barren norbait abeslari;  
ozen, txindor-txinta lez, egistan durundu.  
Olerkari leunaren intzira gozoak,  
lei aberkoiak jori eustazan loratu.

Abes-aldi txoriak baso-gerizean,  
eztiro dagi urak lats-arruan marmar;  
ni, barriz, gaillur zear, oldozkor, amesti...  
euskera, ele gozo, eztarrian dardar.

## AMES UTSALA

Len luzakor ziñean,  
orain laburra txit:  
zure eztarri doiñua  
joana dirudlt.

Zergaitik onen labur?  
Ez al nozu maite?  
Igaz, ona ziñala...  
Oi!, lena izan zaite.

Itxaroa zendun len  
begien ninian,  
ez zenduan atzenik  
itzen jardunian.

Zergaitik aldaketa au?  
Len poz atsegiña,  
gaur biotzaren barru  
ezpata samiña.

Eguzkia beerantza...  
Bertan murgildu nai?  
Ez, etzaite murgildu.  
Zakit izpi alai.

Iratxo itzalak dardar  
ingurun dituzu,  
antsiaz garrasika  
zokoz zoko izutsu.

Dana ustelazi oi dau  
aldi ibilliak:  
uda lena, naiz biotz  
ernemin joriak.